



## HAIN URRUN, HAIN HURBIL

MIKEL ACOSTAren (HEGOA DISKAK),  
THOMAS BOUTOUXen eta OIER ETXEBERRIAren  
arteko elkarrizketa

Londresen hamar urte baino gehiago bizi ondoren, Mikel Acostak Hegoa Diskak diskoetxea sortu zuen 2021eko urtarrilean, COVID-19aren ondoriozko konfinamenduan. Dagoeneko hiru urte beterik eta hamaika disko argitaraturik, Hegoa Diskak musika berrien zigilu entzutetsuenetako bat bihurtu da, eta mundu mailan Euskal Herriko musikari berezi —eta sarritan ahaztuen edo baztertuen— musika esperimentaleko proiektu berri eta zaharrei zabalkundea eta publiko bat eman die.

Hegoa Diskak zigiluaren proiektuarekin (garapen pausatukoa, diskoak banan-banan argitaratuz) Acostak euskal musika esperimentalaren zabaltasuna eta sakontasuna aztertu nahi ditu, genero eta estiloei dagokienez inolako mugarik gabe: folk garaikidea eta ahozko tradizioak, free jazz, minimalismoa, eta musika elektronikoa eta abangoardiakoa. Horrela, diskoetxearen katalogo osoa entzutea Euskal Herriko paisaia afektibo, tinbre eta ehundura, dron eta soinuen azterketa bihurtzen da.



MA Mikel Acosta  
 TB Thomas Boutoux  
 OE Oier Etxeberria

TB Elkarrizketa hau 2023ko azaroaren 16an ari gara grabatzen, zuretzat eta Hegoa Diskoetxerarentzat nahiko egun egitekotsuetan. Aste honetan bi disko argitaratuko dituzu: bata Bidairena, euskal eszenako bi pertsonaia enblematikoren arteko —Xabi Strubell eta Mikel Vega— elkarlaneko proiektu berria, eta bestea Doppelganger-ena, Garazi Navas eta Miguel A. Garciairen arteko elkarlaneko proiektua. Baina hori ez da dena; NTSn, Londresko *online* irrati ikonikoan, euskal musikari eskainitako tarte bat ere estreinatu duzu. Eta lehen saio honetan Verde Prato izan duzu, abesti batzuk zuzenean egiten. Beraz, eskerrik asko Mikel hainbeste jardueraren erdian elkarrizketa honi denbora emateagatik. Eta agian lehen galdera oso erraza izan liteke: nola sentitzen zara honekin guztiarekin?

MA Bai, aste egitekotsua izan da! Oso egitekotsua, izan ere. Oso goiz jaiki naiz egunero, lo egiten dudan bitartean ia lan egingo banu bezala baita. Baina zoragarria izan da, gauza asko gertatzen ari dira aldi berean. Urtarrilean hiru urte izango dira Hegoa martxan jarri nuela, eta uste dut gero eta jende gehiagok duela interesa proiektuan. Hasiera-hasieratik egon da babesa eta interesa, batez ere Euskal Herrian, baina orain abiadura hartzen ari

del iruditzen zait. Eta batez ere ilusio handia egiten didate bi disko hauek, eta Bidaiko Xabi eta Mikelekin, eta Doppelgangerreko Miguel eta Garazirekin lan egiteak, euskal testuingurutik kanpo ezagutzea merezi duten izenak dira-eta. Haien musikak merezi du kanpora ateratzea. Verde Pratorekin egindako programari dagokionez, ez zen planifikatutako zerbait izan. Duela aste pare bat Londresen zegoen, emanaldi bat zuelako, eta orduan bururatu zitzaidan hori egitea. Duela gutxi hasi nintzen ekoizle lanetan NTSn, eta oso ideia logikoa iruditu zitzaidan horrelako zerbait antolatzea. Bai,



Angel Katarain, 2021

disco berriak, lan berria, programa berria, eta gainera etxex aldatu naiz. Egia esan, oso lanpetuta ibili naiz, baina asko gustatzen zaizkidan proiektuak dira. Horretarako egon nahi nuen Londresen, hori nahi nuen, eta gero eta gauza gehiago ateratzen ari zaizkit. Beraz... oso lanpetuta baina oso, oso pozik... Eta oso pozik gaur zuekin biokin hizketan.

OE Ni ere bai! Orain Londresen gertatzen ari zaizuna beti egin nahi izan duzuna dela diozu, hori izan zela Londresera joateko arrazoia. Aipa dezakezu nola hartu zenuen horra juteko erabakia?, disketxea martxan jarri baino urte batzuk lehenago izan zen, ezta? Eta nola bururatu zitzaizun hori martxan jartzea?

MA Bai, duela ia hamabi urte etorri nintzen hona. Istorio luzea da. Ni Euskal Herrian punk musika entzuten hazi nintzen, hori oraindik oso politikoa zen garai batean. Nire belaunaldiarekin azken astinduak ziren, seguru asko. Talde batean jotzeko eta disko bat grabatzeko etorri nintzen Londresera. Hori zen nire ametsa, LP bat egitea: musika biniloan editatzea. Hori zen dena. Baina gero kontua aldatu egin zen. Londresen hainbat talderekin jo ondoren eta baxu-jotzaile gisa kontzertu batzuk eman ondoren, musika elektronikoa grabatzen hasi nintzen nire gelan, era guztietako makinak eta aparatuak erabiliz, eta denbora dezente eman nuen horretan. Gero hemengo unibertsitatean matrikulatzea lortu nuen, eta horrek aldaketa ekarri zuen nolabait. Horri esker, denbora izan nuen hausnartzeko eta benetan zer egin nahi nuen jakiteko, eta nire buruari nora joan nahi nuen galdetzeko. Eta gero pandemia (Covid-19) etorri zen, gogoetarako garai are aproposagoa izan zena,

eta konturatu nintzen artistikoki ez nengoela erabat pozik musika mailan egiten ari nintzenarekin. Proiektu bat amaitzen nuenean inoiz ez nuen pentsatzen argitaratzea edo erakustea merezi zuenik. Uste dut pandemia garaian iritsi nintzela diskoetxe bat muntatzeko asmoak zentzua zuela pentsatu nuen puntura, eta baneraman denbora horri bueltaka. Bat-batean pentsatu nuen: «Eta zergatik ez? Oraintxe bertan jar nezake martxan». Diskoetxeak izandako lagun batzuekin harremanetan jarri nintzen, eta haien laguntzarekin eta aholkuekin, egin nezakeela erabaki nuen.



Atanas Akerstra, 2022

TB Zer ikasi zenuen Unibertsitatean?

MA Musika Teknologiaiko Zientzietan lizentziatu nintzen. Hiru urte horietan zientziak ikasten aritu nintzen buru-belarri. Ez zen Arte Ederretako lizentziatura bat, zientzietakoa baizik. Hiru urte musika-teknologia ikasteko: soinuaren fisika, teoria musikala eta soinu-ingeniaritza. Hiru urte horietan Gobernu britainiarraren beka bat jaso nuen, eta batez ere etxean ikasten, entsetzen eta musika egiten aritu nintzen. Hori 2015ean izan zen.

- TB** Banuen gogoia jakiteko zer ikasi zenuen; izan ere, Hegoa Diskak-ekin egiten duzun lana ikusita, uste dut oso ikuspegi jakintsua dagoela diskoetxea daramazun moduan. Ez dakit ados zauden. Agian zer esan nahi dudan azaldu beharko nuke: lehenik eta behin, ez zaude bakarrik honetan. Musika modu historiko edo are antropologikoan lantzen duen talde edo belaunaldi bateko kide zarela uste dut. Konturatu naiz aspaldi honetan diskoetxe askok, baita DJek eta irrati-esatariek ere, bide horri jarraitu diotela, eta duela hamar urte, artisten katalogo baten inguruko diskoetxe bat oso bestela eramaten zen. Eta ez du zerikusirik disko arraroak arakatzeko eta garai desberdinetako bitxi galduak aurkitzeko kulturaren emaitza izan den berrargitalpenen moda horrekin. Hegoarekin duzun helburua bestelakoa, zabalagoa, sakonagoa eta eruditua dela ematen du; ikerketa baten antz handiagoa du, hots, eremu jakin bat identifikatu, mapatu, loturak ezarri, esploratu eta kontatzearen prozesuen antza du. Hori da nire ustez zuk egiten duzuna, ez bakarrik diskoetxearekin, baita diskoetxearen Bandcamp orrian idazten dituzun testuetan ere,<sup>1</sup> edo Stamp the Wax webgunean. argitaratu zenuen «A Brief History of Post-Franco Basque Music»<sup>2</sup> testu luzeagoan ere. Ba ote du zentzurik zu historialari gisa deskribatzeak, autodidakta eran bada ere?
- MA** Erdiz erdi asmatu duzu! Bai, istorioak interesatzen zaizkit, eta aurkikuntzak interesatzen zaizkit, musikan dagoen eta musika ez den guztia. Musika nork egin zuen eta zergatik. Nola iritsi zen horra. Era guztietako galderak: zerk eraman zuen pertsona hau edo hura musika hau egiteko prozesu jakin bat zeharkatzera? Zergatik? Edo zergatik ez du musika hau jende gehiagok ezagutzen, nire ustez oso ona izanda? Azkenean, istorioak dira funtsezkoena. Gure gizarteak bizi duen une honetan inork ez du denborarik galdera horiek egiteko; emandakoa kontsumitu besterik ez dute egiten. Eta hori errazegia da; horrela ez duzu zeure buruari galderarik egin beharrik. Niri, berriz, istorioaren beste aldea interesatzen zait. Beti dago musika baino zerbait gehiago: artea dago, erabakiak, aukerak, bizitza, bizitzeko modua. Beraz, bai, asko gustatzen zaizkit musikaren atzean dauden istorioak, eta testuinguruan jartzea interesatzen zait, piezak elkartzea. Niretzat bakarrik bada ere: diskoetxean argitaratu nuen lehen diskoan ere,<sup>3</sup> nire galdera zen: nola da posible? Nola liteke pertsona horrek (Angel Katarain) hain musika harrigarria ekoitzi eta hain jende gutxik ezagutzea, hain gutxik aintzat hartzea, Euskal Herritik atera den gauzarik onenetakoa izanik, nire ustez? Aldi berean, liluratu egiten nau ia beste inork horrela ez ikusteak. Baina galdera horiek guztiek, orain konturatzen naiz, nire bizitza pertsonalarekin, nire ibilbidearekin eta Euskal Herritik alde egiteko arrazoiekin eta horri buruzko sentimenduekin dute zerikusia. Azkenean, oso gauza politikoa da, eta hau ez nuen erabat ulertu iaz arte.
- OE** Bai, agian interesgarria da «distantzia» kontzeptua sartzea elkarrizketan. Diskoetxearen arkeologiak hitz egin dugu, baina nik uste dut ez zela horrelakorik gertatuko Londresera joan izan ez bazina eta Euskal

Herria urrutitik ikusi eta gogoan erabiliko ez bazenu, edo agian... are hoztasun kutsu batekin?

MA Hori funtsezkoa da! Bai horixe! Hori da guztiaren gakoa. Beste testuinguru batetik, beste testuinguru horretan kokatu ahal izatea. Musikarekin gazteagoa nintzenean ez bezala erlazionatzea. Orduan horrela zen: «Hau entzun behar duzu eta besterik ez, zerbaiten alde ari gara borrokan, euskaldunak gara, hau da gure kultura, eta abar». Testuinguru horretatik irteten zarenean eta gauzak zeure ikuspegitik eta pentsamolde propioarekin ikusten hasten zarenean, jabetu egiten zara, eta bat-batean zera esaten duzu: «Zaude hor, jarrera politikoa bat izatea ez da bando batean edo bestean egotea, dena ez dazuria edo beltza». Lehengora itzuliz, Londresen egoteak hori ulertarazi zidan Euskal Herriari buruz, baita musikari buruz ere. Musikarekiko dudan interesa oso sakona da. Era guztietako musika entzuten dut, eta gauzak aurkitzea gustatzen zait. Diskoetxea sortzeak zabaldu egin zuen Euskal Herrian egindako musikari buruzko nire ikuspegia, eta diskoetxea erabat politikoa dela ulertarazi zidan, baina ez Euskal Herrian politika zer zen kontatu zidaten eran. Diskoetxean lan egiteak hori ulertzen lagundu dit, eta baita erabaki politikoa zergatik den ere. Gakoa distantzia da. Nire eskolako lagunak, betidaniko lagunak ikusten ditut, eta bai, batzuek diskoetxea babesten dute eta interesatzen zaie, baina funtsean ez dute ulertzen zer egiten dudan eta zergatik. Kontua ez da diskoak argitaratzea bakarrik, askoz zabalagoa da.

TB Nire buruari galdetzen diot ea aipatu dugun distantzia horrek ez ote dakarkizun musikarekiko beste harreman bat, eta ez ote dizun maila emozional eta estetikoan eragiten hizkuntzagatik, Euskal Herritik bere aniztasun osoan datozen soinu eta istorio partikularrengatik eta, zuk diozun bezala, hango erabakitazunik ezagatik eta kontraesanengatik. Beharbada, distantzia horrek emozionatzen ere lagunduko dizu, hunkituta sentitzen, eta, beraz, gauzak beste modu batean ulertzen. Diskoetxearen orain arteko diskografiaren ezaugarri bat da; uste dut disko guztiek dutela osagai afektibo handi bat, berez identifikatzen eta izendatzen errazak ez diren giro eta atmosfera jakin batzuekin, baina hala eta guztiz ere oihartzuna dutenak.

MA Bai. Halaxe da. Eta bitxia da, azken bi urteotan nahiko garai hunkigarria bizi izan baitut maila pertsonalean, eta harritu egiten nau emozioak lehenago ez prozesatu izanak. Agian tresnarik eman ez zaidalako eta nola egin ez nekielako. Argitaratzen ari naizen eta hunkigarria iruditzen zaizun musika guztiarekin, nire iraganarekin, haurtzaroarekin eta bizi izan ditudan gauzekin konektatzeko modua izan daiteke. Nola egiten da konexio hori? Euskal Herrian dagoen musika aniztasun handiak atzera egiten laguntzen dit, nire iraganera, zentzua emateko. Ziur aski, gai horri buruzko elkarrizketa oso interesgarria eta konplexua izan liteke.


OE Nire ustez, emozioen, musikaren eta Euskal Herriaren historiaren artikulazio hori interesgarria izan daiteke, oso interesgarria; izan ere, uste dut barruan

daramagun politikak zerikusia duela, neurri batean, zuk diozun bezala, emozioak kudeatzeko gaitasun ezarekin. Politikaren arloan, adibidez, indarkeria amaitu zenean emozioekin konektatzeko ezintasun hori agerikoa izan zen. Eta agian hori arazo handia izan zela ere esan dezakegu.

MA Eta hala izaten jarraitzen du.

OE Bai, eta agian hala izaten jarraitzen du. Munduaren alde honetan indarkeria eta musika uztartzen diren istorio harrigarriak aurki ditzazkegu bestetik. Nik uste dut musikak, nolabait, airean zegoen indarkeria guztia katalizatu zuela; nolabait, organikoa bihurtzen zuen, zure gorputzetik pasarazten zuen eta, aldi berean, hartatik askatzeko aukera ematen zizun. Baina bai, emozioez eta Londredera joateaz ari zara, eta niretzat kontua ez da soilik politikatik aldendu eta estetikari heltzea, edo hori ez da planteatzeko modurik egokiena, baizik eta, agian, beste modu batean konbinatzea, hemen posible ez zen eta hala izaten jarraitzen duen beste modu batzuen ikerketa alegia.

MA Hori ulertu nuen, hain zuzen ere: zerbaitek eduki politikoa izan dezakeela, nahitaez politika aipatu gabe, iritzia eman eta adierazi beharrik gabe. Nire diskoetxearen izaera hutsagatik da politikoa. Hango jendearen musika argitaratzea, eta beste leku batzuetara eramatea, hori, seguru asko, politikoagoa da bere burua «euskal kulturaren» aldeko borrokan superpolitikotzat duen askok egiten duena baino. Pixkanaka ari haiz horretaz ohartzen. Diskoetxearekin hasi nintzenean, zera pentsatzen nuen: «Musika hau gustatzen zait, jendeak ezagutu beharko lukeela uste dut». Baina orain, hiru urte igaro ondoren, konturatzen hasi naiz agian aukera axolagabea izan zela bide horri jarraitzea hasieratik egiten dudanaren beste testuinguru eta alderdi batzuk ulertu gabe eta egiten dudana zergatik egiten dudan ulertu gabe. Musika beti izan da nire motorra, nire ihesbidea. Emozio horiek kudeatzeko jaso nuen tresna bakarra zen. Lehendabizi punkarekin, halako disko edo kontzertura joan eta leher egin arte dantza eginez. Eta arazoa da, berriro ere, tresna horiek ez dizkigutela lehenago eman gure emozioei modu seguruan aurre egiteko.



OL UZ, 2022

OE (Covid-19) pandemiari buruz esan duzun horri heldu nahiko nioke berriro, Hegoan argitaratu duzun musikari dagokionez ere garrantzitsua




dela uste baitut. Lehen Thomas eta biok horri buruz hizketan egon gara; pandemiak geroztik intimismoaren ikuspegi berri bat egon da musika «experimentalean», eta uste dut diskoetxearen eta orain arte argitaratu dituzun diskoen ezaugarri bat ere badela.

MA Niretzat oso argi dago pandemiak, hasiera batean, denbora eman zigula geure buruarekin konektatzeko, aurrean genituen arazoak ulertzeko, arazo pertsonalak edo bestelakoak. Eta hori egiten hasten zarenean, zure arazoei aurre egiten hasten zarenean, erresiliente bihurtzen zara automatikoki. Arazo horiek aztertzean, pertsona hobea bihurtzen zara, edo, gutxienez, alderdi batzuetan hobeto ulertzen duzu zure burua. Besteekiko lotura emozionala, empatia handiagoa izatea... pandemiarekin hobetu zen, zalantzarik gabe. Baita galerari eta minari aurre egitea ere, etab. Hori orokorra izan zen eta mundu guztiak aurre egin behar izan zion, zortzi hilabetez egon baikin giltzapetuta. Eta horrek nola aldatu gintuen? Nire ustez, askok barrura begiratu genuen. Niri behintzat, horixe gertatu zitzaidan. Eta musikarekin beste modu batean konektatzea ekarri zuen. Pandemia garaian, musika tresna bihurtu zen.

TB Bai horixe. Etorkizunean musikaren historiari eta musikak gizakiaren bizitzan izan duen paperari begiratu diogula uste dut, eta pandemia eta konfinamendua paradigma-aldaketa gisa aipatu diogula. Uste dut hori ez dela gertatu beste diziplina artistiko batzuetan. Nik ez dut uste

zineman, ikusizko arteetan, eta ezta literaturan ere, mugarri bat egon denik, baina musikan bai, musika eta generoak sortzeari dagokionez; adibidez, *post-ambient* eszena nola berri den pentsatzen dut, baina baita musikarekin nola erlazionatzen garen ere, eta nola ulertzen dugun musika ez hainbeste kronologia gisa, baizik eta kartografia gisa, koordinatu geografiko eta politiko gisa, ingurune gisa, lurralde gisa... agian lehen baino modu antropologikoagoan. Ez naiz munduko musikaz ari, lehen ulertzen genuen zentzuan, baizik eta musikaren munduez.



A. Maiah, *F(r)icciones*, 2023

MA Musika gizatiartzea. Bai, pandemiak geroztik gehien hunkitzen nauten musika-proiektuak erabat pertsonalak dira, eta sakonki gizatiarrak. Agian pandemiaren ondorioz berreskuratu den zerbait da. Musikak denbora asko darama alderdi askotan gizatasunik gabe. Ados nago. Baita soinuari

eta sonoritateei dagokienez ere. Beti interesatzen zaizkit ezohikoak diren gauzak, nolabait esateko. Ezer ez dut gogokoago musika pieza bat entzun eta katalogatzen ez jakitea baino. Hori asko gustatzen zait. Entzun eta ez ulertzea klasikoa den edo folka den, ez ulertzea zehazki non kokatu. Nahasketak egiten direnean gertatzen da hori, arautik ateratzeko asmoa dagoenean. Eta berriz ere —orain konturatzen naiz—, oso politikoa da. Berriz ere maila pertsonalean hitz egiten ari naiz, baina jende guztiak berdin jokatzeko duela ikusten dudanean, estutasuna sortzen zait. Joan den astean konturatu nintzen Londresen, Palestinaren aldeko manifestazio batean; milioi bat pertsona inguru egongo zen, gutxi gorabehera. Ez naiz oroitzen horren aurretik noiz egon naizen manifestazio batean. Inoiz ez baitut era horretan politikan parte hartu nahi izan. Amak esan ohi zuen «politika, hartatik bizi direnentzat» zela, eta sarritan pentsatu ohi dut horri buruz. Inoiz ez dut ulertu zergatik jartzen den jendea sutsuki baten edo bestearen alde, eta zergatik identifikatzen den politikarekin munduko beste ezerekin baino gehiago. Inoiz ezin izan dut politikariek esaten dutenarekin konektatu, eta hori gertatzen zait orain ere. Beraz, joan den astean, azkenean, manifestazio batera joateko ahalegina egin nuen, hemen astero bat egoten baita, eta azkenean joatea erabaki nuen, baina han nengoela, asko eragin zidan. Une batean alde egin behar izan nuen. Hunkigarriegia zen. Ia negarrez hasi nintzen, iraganeko oso oroitzapen txarrak ekarri baitzizkidan gogora. 1997an, hamar urte nituela eta amarekin Donostian nengoela, bat batean Ezker Abertzalearen inguruko talde bateko kideak, burua estalita, poliziari molotov koktelak botatzen hasi eta jendea ikaratu eta noraezean korrika atera zenean bezala sentitu nintzen berriro. Gogoan dut ama bat, bi haurrekin zihoana, alde guztietatik bultzatzen zutena, mugitu ezinik, harrapatuta. Oso esperientzia traumatikoa izan zen, eta joan den astean manifestazioan berriro etorri zitzaidan gogora. Horrekin guztiarekin esan nahi dut egiten ditudan gauzak era batera edo bestera nire iraganarekin lotuta daudela, eta musikaren kasuan, oso harreman argia ikusten dut.

- TB Orain arte, euskal musikari bakarrik erreparatu dio Hegoak. Baina ez da diskoetxe artxibista bat. Berrargitalpenei eskainitako diskoetxea ere ez da, gaur egungoak bezala.
- MA Eskerrik asko berrargitalpenen diskoetxe bat ez dela esateagatik. Halaxe da.
- TB Nire ustetan, euskal musikaren historia ez-ofiziala edo alternatiboa idazteko proiektua da, eta fokua urteak daramatzaten baina agian ezer argitaratu ez duten edo oso gutxi argitaratu duten musikarietan jartzea, edo elkarrekin lan egin duten musikarietan. Eta hori egin ahal izateko baldintzak sortzea eta haien arteko harremana disko moduan zehaztea da bilatzen duzuna. Dagoeneko artista gazteagoen lanak argitaratu dituzu, Verde Pratorenak, esate baterako. Eta orain nire galdera: hori al da Hegoak gaur egun duen proiektua?, eta Euskal Herritik ez datorren musika ere argitaratzeko asmoa duzu? Jende askok galdetuko zizun dagoeneko.

MA Bai. Neurri batean, Madrilan edo Bartzelonan musika egiten duten adiskideak ditudalako, eta asko interesatzen zaidan musika zoragarria bidaltzen didatelako. Eta agian bizpahiru aldiz egon naiz, diskoetxearen lehen hiru urte hauetan, haien musika argitaratzeko zorian. Baina orain ikusten dut ez duela zentzu handirik. Proiektuaren ardatza hau da. Agian beste proiektu batzuk jar nitzake abian beste era bateko gauzak egiteko. Hori orain ere egiten dut, Londrestik *free jazz*eko diskoetxe bat daramat, beraz, beste gauza batzuk ere egiten ari naiz. Baina uste dut Hegoak horrelakoa izaten jarraitu behar duela. Agian, honetaz gain, liburuak argitaratzea eta formatu desberdinekin lan egitea baino ez litzaidake gustatuko, baina beti zigiluaren koordinatuen barruan. Londresen, lagun batek eta biok banatzaile bat sortu dugu, eta zigilu britainiarrak banatzen ari gara atzerrian. Beraz, Australiako, Zeelanda Berriko eta Japoniako dendetan saltzen ditut nire diskoak, eta European, berriz, Belgikan, Eszena harrigarria dago, adibidez, Goteborgen —han diskreet music izeneko denda bat eta zigilu bat daude—, Belgikan eta Alemanian. Baita ABEetan ere. Gauza asko gertatzen ari dira han hemenka txoko askotan. Hori oso garrantzitsua da argitaratzen dudana zigiluari eta musika ulertzeko dudana moduari dagokienez, eta hori ere lehen aipatu dugun musikaren gizatasuna galtzearen aurka doa. Izan ere, disko bat edo zinta bat, CD bat edo dena delakoa argitaratzean eta kilometro askotara norabait bidaltzean, giza konektibitatearen alderdi bat berreskuratzen ari zara. Banatzaileari esker, adiskide asko ditut munduko leku guztietan, eta etengabe ari gara elkarrekin musika trukatzeko. Madrilgo adiskide batek posta bidezko arteari buruzko tesia egin zuen. Hori da kontua, eta horixe da gehien interesatzen zaidana. Atera ditudan bi edo hiru disko Spotifyn sartzeko proba egin dut, baina hurrengoekin ez dut hori egingo. Ez du ezer aldatzen. Ez diot zentzu handirik ikusten. Irigarritasun kontua bada, nahiago dut beste modu batean lan egin. Atzo, diskoak argitaratu ondoren, mezu bat bidali nuen Bandcampen diskoak erosten dituzten guztientzat, esanez: «Ordaindu ezin baduzu, idatziezaguzu eta aurkituko dugu modua». Brexita dela eta, oso zaila da biniloak eta gauzak saltzea Erresuma Batutik. Baina nahiago dut hori egin Spotifyn jarri baino.

TB Hegoa Diskakenean ikusizko eta ukituzko alderdia ere oso garrantzitsua da zigiluari eta irudikatzen duenari dagokionez, ezta? Ikusmenak ere badu bere tokiak. Nola bideratu duzu proiektuaren alderdi hori?

MA Egia esan, nahiko inprobisatua izan da. Ikusizkoari dagokionez, badakit zer gustatzen zaidan eta zer ez. Horretan eragin handia izan dute kaseteen kulturak, arteak eta bizi osoan disko-bildumak egiteak. Horrek eragin du, alde batetik, diseinatzaile gisa dudana pentsamoldean. Baina normalean euskal artistekin ere kolaboratzen saiatzen naiz. Proiektu bakoitza modu naturalean garatu da, artistarekin hitz eginez. Zer uste duzu? Zein da zure ikuspegia? Izan ere, haren musikaz nik dudana ikuspegia garatzen ari naiz. Alberto Lizarralderen diskoaren azala Pablo Mironek egin zuen, Madrilgo adiskide batek. Haren ideia mugimenduan dagoen film bat eskaneatzea izan zen; musikaren interpretazio txiki ona da, aldi berean organikoa eta

digitala. *Carcascara II*rena eskuz egin zen, ale bakoitza kartoi birziklatu baten gainean eskuz zigilatuz. Argi zegoen horrela izan behar zuela. Beraz, ikusizko dimentsioa, funtsean, artistekin lantzen da, estetikarik inposatu gabe.

TB Londresera eta Erresuma Batura itzuliz, gero eta finkatuago zaude hango eszenan. Zigilua Londresko eszenako hainbat jendek etxekotu du (Jack Rollo, Time Is Away...), hainbat dendak (World of Echo, All Night Flight Records...) eta hainbat aretok (Black Tower Projects, Café Oto... ). Nolabait, Londresko eszena batekoa zarela iruditzen al zaizu, euskal eszenakoa baino gehiago?

MA Bai, dudarik gabe. % 100ean! Hori hemen bizitzearen ondorio zuzena da. Horrelako ezer ezin zitekeen bestela gertatu. Jack Rollo laguna dut. All Night Flight Records-en urteetan Tom-i diskoak erostean emaitza da, eta gero, halako batean, nire zigilua aurkeztearena; «Guau, hau oso ona da!» esan zidan. Baina lehendik ere bazegoen harreman bat, eta mundu guztiak laguntzen du era batera edo bestera. Horrek Londresen bizitzearekin eta jende hori guztia oso testuinguru ezberdinetan ezagutzearekin du zerikusia, goizeko 4etaraino klub batera teknoa entzutera joan eta beste batean Cafe Otoran Evan

Parker *free jazz* jotzen ikustera joatearekin. Hemen dena oso konektatuta dago, eta horregatik dut Londres hain gustuko. Punka eta *free jazz*a entzun dezakezu, dena konektatuta dago, ez dago oztoporik. Euskal Herrian ikasten eman nituen urteetan, ordea, oztopo horiek nonahi zeuden. Han ia ezinezkoa zen gauzak beste era batera imajinatzea. Punka gustatzen bazitzaizun... Ba punka gustatzen zitzaizun. Ez zegoen besterik, pentsaezina zen pop musikari baten kontzertua entzutera joatea. Hori zen garai hartako pentsamoldea. Baliteke pixka bat puztu izatea, baina nik behintzat horrela sentitzen nuen.

OE Baina tokiaren arabera da. Ni, berriz, Azpeitiko gaztetxeaz gogoratzen naiz, baina batez ere Azkoitikoaz, gaztetan han bizi izan bainintzen. Ez zegoen halako hesirik. Handik sortuko ziren Akauzazte bezalako taldeak edo Anari bezalako musikariak. Eta egia da punka gailentzen zela estilo bezala baina era berean popak bere lekua zuen, Nick Cave, La Insidia, Dream Syndicate, La Dama Se Esconde edo Talking Heads, entzutea oso ohikoa zen esate baterako.



Bidai, *Biarrezgaur*, 2023

- MA Bai, eta bitxia da. Izan ere, hori da nire buruari egin izan diodan galdera: nolatan ez nuen inoiz Irunen hain gertu bizi izan eta horretaz hitz egiten entzun? Inork ez zidan esan existitzen zenik. Horrek nire onetik ateratzen nau. Edo Artelekuko Audiolab. Horren guztiaren berri gero izan dut, Londresen, ez han. Nola liteke? Zer gertatzen da? Hor zerbait ez dabil ondo. Nola liteke Irunen bizi nintzela ordu erdi eskasera gertatzen zen zerbaiten berri ez izatea? Nolatan ez nekien horrelako gauzak gertatzen zirenik? Horrek asko adierazten du euskal kulturaz eta gure izaera hermetikoaz.
- OE Belaunaldien arteko espazio komunak sortzea da helburua. Gaur egun faltan botatzen dut hori, eta horretan lan egiten saiatzen naiz, belaunaldi batzuk eta besteak elkartzen, baina ez da erraza. Tabakalera egiten ari naizen lanean ikusten dut.
- TB Hori oso interesgarria da, eta agian elkarrizketa grabatzen hasi aurretik esan dugunera garamatza, zuzeneko kontzertu gehiago antolatu nahi zenituela esan duzunean, eta zigiluko taldeentzako kontzertuak antolatzen saiatzen ari zinela Euskal Herrian eta atzerrian. Beraz, agian irakurleei abisatu beharko genieke adi egoteko ez bakarrik zigiluaren hurrengo argitalpenari, baita oraintxe bertan itxura hartzen eta sendotzen ari diren Hegoaren ekitaldi eta dimentsio guztiei ere. Hau hasi besterik ez da egin.

## Oharrak

<sup>1</sup> <https://hegoadiskak.bandcamp.com>

<sup>2</sup> [www.stampthewax.com/2021/03/04/a-brief-history-of-post-franco-basque-music/](http://www.stampthewax.com/2021/03/04/a-brief-history-of-post-franco-basque-music/)

<sup>3</sup> *Angel Katarain*, Hegoa Diskak, 2021